



ORDENANTZA 18. ZK

AGURAINGO UDALA

ARABAKO LURRALDEA

AGURAINGO UDALEKO TITULARTASUNEKOAK DIREN "SOTOS Y VARGAS" 610 ZENBAKIKO ETA "UDALA" 611 ZENBAKIKO MENDIETAKO ABELTZAINZAKO APROBETXAMENDUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

1.KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Ordainarazpen honen xedea da Aguraingo Udalaren 1. poligonoko 610 eta 611 zenbakidun mendietako eta 409 lurzatiko erabilera komuneko ekipamenduen erabilera eta larre-aprobetxamendua arautzea, Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauan eta gainerako araudi aplikagarrian gaiaren arabera ezartzen diren eskumen-mugak errespetatuz.

2. artikulua.- Bizilagun guztiek erabiltzeko ekipamendutzat joko dira askak, mahukak, bideak eta oro har larreak ustiatzeko baimena duten abeltzainek erabili ahal duten edozein azpiegitura.

3 artikulua.- Mendiei buruzko foru arauak ezartzen duen moduan, aprobetxamenduaren baimenak ezin izango du gainditu onar daitekeen abeltzaintza kargaren muga, antolamendu eta kudeaketa tresnetan edo, horiek gabe, aprobetxamenduen urteroko planetan ezarri dena. Horrez gain, animaliak mendian ezartzen den larratze egutegiaren barnean egoteko baimena emango du bakarrik.

4. artikulua.- Bazkatzeko aprobetxamendua saiatuko da bazka baliabideak zentzuz erabiltzen. Horrela, mendiaren gainontzeko erabilerekin eta mendiak gordetzen dituen baloreen babesarekin bateragarria izango da.

5. artikulua.- Basoan edo zuhaitzez estalita dagoen basogintza edo basoko aprobetxamenduaren kasuan, lehentasuna emango zaie basoko beharrezaneiei eta zehazki, zuhaitzak zaindu eta birsortzeari.

2. KAPITULUA.- ONURADUNEI BURUZKOA

6. artikulua.- Bazkatzeko aprobetxamendua erabiltzeko eskubidea duten Aguraingo Udaleko edo beste udal bateko auzotarrek jatorriz daukate udaleko jabetzakoak diren



mendiez gozatzeko eskubidea, eta eskubide hori mendiez benetan gozatzeko administrazio eskubidea da.

7. artikulua.- Udal erregistroan inskribatutako suteği unitateak izan ahalko dira larreen eta bizilagun guztiek erabiltzeko ekipamenduen aprobetxamenduaren onuradunak, baldin eta ordenantza honetako 7. artikulua jasotako betekizunak betetzen badira.

3. KAPITULUA.- ERREGISTROARI ETA ABELTZAINEN BATZORDEARI BURUZKOA

8. artikulua.- Udal honek abeltzaintza erregistro bat egingo du. Bertan agertuko dira Sotos y Vargas 610 zenbakiko onura publikoko mendietako eta Udala 611 zenbakiko onura publikoko mendiko larreak erabiltzen dituzten abeltzainak.

8.1.- Abeltzaintza erregistroa osatzen duten abeltzainek abeltzainak ordezkatzeko batzordea osatuko dute. Batzorde hori organo aholku emailea da, baita kudeaketan laguntzekoa ere.

8.2.- Abeltzainen batzordea abeltzainen erregistroko kideek osatzen dute, eta gehienez ere, hiru ordezkari izango ditu.

8.3. Abeltzainen batzordea behin aukeratuta, horrek haren kideen berri eman beharko dio udalari eta kideen artean aldaketak daudenean horiek ere jakinarazi beharko dizkio.

IV. KAPITULUA.- LARRATZE EPEARI BURUZKOA

9. artikulua.- Sotos y Vargas 610 zenbakiko onura publikoko mendian abeltzaintza aprobetxamendua baliatzeko baimendutako aldia, oro har, apirilaren 1etik abenduaren 25era artekoa izango da urtero.

Udalaren 611 zenbakiko onura publikoko mendian, abeltzaintzako aprobetxamendua urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era eta urriaren 1etik abenduaren 31ra bitartekoa izango da.

Oro har, 1. poligonoko 409. lursailean abereak sartzeko epea urte bakoitzeko abenduaren 25etik martxoaren 31ra bitartekoa izango da, eta abeltzain bakoitzak ukuiluak garbitzeko beharrezko eta ezinbesteko denbora eskatu ahal izango du. Abereak gehienez ere bost ordu egongo dira bertan.

10. artikulua.- Udalak, organo eskudunaren akordioaren bitartez eta 8. artikuluan ezarritako abeltzainen batzordearen kontsulta edo txostena eta gero, larratze epe hori berraztertu ahalko du abeltzaintzako eskariaren, klimatologiaren inguruabar zehatzen, larreen edo beste inguruabar batzuen arabera, hala gomendatzen badute.

5. KAPITULUA.- APROBETXAMENDUAREN ARAUDIA



11. artikulua.- Aprobetxamendua eskatzen duten sutegi unitateen titularrek honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

A. Betekizun orokorrak.

a) Adinez nagusia izatea, erretiroa hartu ez duena, zein adingabe emantzipatua edo epai bidez gaitua, eta abeltzaintzan jardutea, bere jabetzakoak diren edo alokairuan dituen lurak bazka laborantzaren bidez landuz.

b) Udal erroldan Aguraingo Udal honetako edo bazka aprobetxamendurako eskubideak dituzten beste udalen bateko udal erroldan bizilagun gisa inskribatuta egotea eta urtebete gutxienez erroldatuta egotea; halaber, abeltzainen erregistroan izena emanda egotea. Abeltzain gazteek, ordea, ez dute zertan antzinatasun baldintza bete, hala erabakitzen badu erakunde titularrak.

c) Mendiaren jabearen kanonak, ordainarazpenak eta gainerako zergak betetzea eta ordaintzea.

B. Berariazko betekizunak.

Horrez gain, honako baldintza bereziak bete beharko dira larreak aprobetxatzeko:

a) Abere azienda edo jabetzen titularra izatea eta horiek Arabako Foru Aldundiaren Abere Ustiategiaren Erregistroan izena emanda egotea.

b) Deklaratutako abereentzat lursail edota ukuilu nahikoa izatea beharrezkoa den denboran zehar. Lursail edo ukuilu horiek teknika zein ingurugiro aldetik egokiturik egongo dira (agiri bidez frogatu ahalko da) eta Agurainen edo bazka aprobetxamendurako eskubideak dituen beste udalerrri batean kokatuta egon beharko dira. Horrez gain, tokia bertan egoteko modukoa eta bazka baliabideen bidez elikatze modukoa izango da ondorengo arrazoiengatik mendian egoterik ez denean: aprobetxamendu horretako espezieen etenaldi begetatiboagatik, osasun aldetiko koarentena egoteagatik, mendiaren egoera txarragatik edo mendian egotea eragozten duen beste edozein arrazoi batengatik.

Salbuespen gisa, onartuko da toki hori erroldatuta dagoen herri berean kokatuta ez badago. Hala ere, kasu horretan betekizun hauek bete beharko dira: abereak ukuiluratzeko mugikortasuna ahalbidetzen duen erradioan kokatuta egotea, abeltzaina erroldatuta dagoen herritik gertu egotea, abeltzaintzako jarduerarako behin-behineko erabilgarritasuna eta abelburu kopurua.

Albaitari zerbitzu eskumendunek egindako kontrolen bidez, titularrak egiaztatu behar du instalazio horietan daudela eta erabiltzen edo maneiitzen direla larrean egoteko eskubidea duten abereak. Saldu direlako edo halabeharrezko edo osasun egoera gertatzen delako abelburu kopurua murrizten bada, albaitari zerbitzuen aurrean behar bezala justifikatuko da.



c) Abeltzaintzako saneamendua eta mugimendua kontrolatzeari dagokionez, indarrean dagoen arauditik ondorioztatzen diren eskakizunak betetzea, bereziki abereen saneamendu egoerari eta behar bezala desinfektatu diren eta horretarako ezarritako betekizunak betetzen dituzten ibilgailuetan garraiatzeari buruzko osasun ziurtagiriak.

d) Aguraingo Udalak larreen aprobetxamendurako ematen duen baimena aurretik eskuratu izana.

e) Abereak aurretik eta banan-banan identifikatuta eta markatuta izatea, organo eskudunak ofizialki onartu dituen sistemen bidez.

f) Landatze eta lehengoratzeko lanak egiteko jarri diren itxiturak errespetatu behar dira, bai eta batez ere suteen ondorioz hesi diren azalerak ere.

g) Zuzenean eta norberak -edo titularrarekin batera bizi diren pertsonen laguntzaz- lurra landu eta abereak zaintzea, soldatapeko langileak noizean behin, nekazaritza ustiategiko urtaroko eskakizunak direla-eta, bakarrik erabilita. Betekizun hori ez da ez betetzat joko, norberak aurretik zehaztu den moduan lan egiten jarraitzea eragozten duen gaixotasun edo beste arrazoiren bat egotekotan soldatapeko langile bat edo bi erabiltzen denean/direnean.

12. artikulua.- Ordenantza honen ondorioetarako, sutegi unitatetzat joko da etxebizitza berean bizi den jende multzoa.

13. artikulua.- Sutegi unitate bakoitzeko gehienezko abelburu kopurua zehazteko eta nekazaritza ustiategietako auzokide titularrek, ustiapena jarduera nagusi izan ala ez, eraturako sutegi unitateetan abel-buruak banatzeko, mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 46.2 artikulua xedatutakoa bete beharko da.

14. artikulua.- Bazkan jarduteko zona hutsik geratzen bada, udal honek aprobetxamendu hori esleitu dezake ordenantza honetako 11. artikulua ezarritako betekizunak betetzen dituzten abeltzainen artean. Aprobetxamendua esleitzerakoan ondoko hauek izango dute lehentasuna: inguruko auzokidea izatea, abeltzain gaztea izatea eta ustiapena jarduera nagusi izatea.

Kasu horretan, aprobetxamenduagatik ordaindu beharreko kanona hauxe izango da gutxienez: sutegi unitateetarako urtero ezarritako kuota bider 1,5.

15. artikulua.- Abereak sartzeko eskabide gehiago badaude abere karga onargarria baino, udalak onartu beharreko abere kopurua mugatuko du, aurreko irizpideei jarraituz eta moduluak zehaztuz teknika, ingurumen eta gizarte arloko irizpideak oinarri.

Ustiategi edota sutegi unitate bereko eskabideak eskabide bakarra direla ulertuko da.

Dena den, ustiategi batean sutegi unitate bat baino gehiago dagoenean edo sutegi unitate batean ustiategi bat baino gehiago dagoenean, baimen bi gehienez emango dira ustiategi edota sutegi unitate bakoitzeko.



16. artikulua.- Udalak urtero eskatuko dio Arabako Foru Aldundiari larreen aprobetxamendua urteko planean; halaber, aurkeztu beharreko egutegia aurkeztuko dio.

17. artikulua.- Abeltzainek Aguraingo Udalean aurkeztuko dute, urriaren 15etik urriaren 31ra, biak barne, 610 Sotos y Vargas mendian bazkatu beharreko abelburuen adierazpen bat.

611 Udala izeneko onura publikoko mendian ezarritako larre-aldian larratu nahi duten abeltzainek Aguraingo Udalean aurkeztu beharko dute, urriaren 15etik urriaren 31ra, biak barne, zein abelburutarako eskatzen duten adierazten duen aitorpena.

Era berean, 1. poligonoko 409. partzela erabili nahi duten abeltzainek baimena izan beharko dute Sotos eta Vargasen bazkatzeko, eta astebete lehenago jakinarazi beharko dute ganadua sartzen dela, eta gehienez astean bitan.

18. artikulua.- Aprobetxatzeko eskubidea duten onuradunek, lehendik aipatutako epeen barruan, beharrezkoak diren datuak jakinaraziko dizkiote udalari, azken horrek abere azienden errolda osa dezan. Hori guztiori datu pertsonalak barne hartzen dituen eskabide baten bidez egingo da: Izen abizenak, Nortasun Agiri Nazionala, helbidea (bertan erroldatuta daraman denbora zehazten duen Biztanleen Udal Erroldako ziurtagiria erantsiz), abere espeziea eta bazkatzeko epealdian larreratuko den abelburu kopurua, eskatzaileak sinatu beharko dituen belarritako zenbakiak edo matrikula.

19. artikulua.- 610 eta 611 zenbakidun onura publikoko mendietako larreak aprobetxatzen dituzten eta 1. poligonoko 409. partzela erabiltzen duten abereek indarrean dauden osasun- eta kontrol-baldintzak bete beharko dituzte, eta behar bezala identifikatuta egon beharko dute, bai animalien erregistroaren araudian, bai mendira edo larreetara sartzeko berariaz eskatzen direnetan, halakorik balego.

20. artikulua.- Larreak aprobetxatzen dituzten abeltzain onuradunen betebeharra izango da horretarako azpiegiturak garbi eta zainduta edukitzea.

21. artikulua.- Abeltzainen bat hesiak hautsi egin direla edo abeltzaintzarako erabiltzen den beste ekiporen batek kalteren bat duela konturatzen bada, ahal bezain laster jakinaraziko dio udalari. Halaber, gaixotasun fokuren bat antzematen badu, Arabako Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuari jakinaraziko dio.

22. artikulua.- 610 eta 611 zenbakiko onura publikoko mendian jatekoa banatzea debekatzen da. Udalak, lantzean behin, jatekoa banatzeko zonak egoki ditzake; hau da, udalaren berariazko baimenarekin eta udalak berariaz adierazitako zonetan baino ezin izango da horrelakorik egin.

23. artikulua.- Udalak, 610 eta 611 zenbakidun onura publikoko mendiak eta 1. poligonoko 409 lursaila kudeatzen dituen erakundea den aldetik, eskubidea izango du bere korporatiboek, teknikariek edo gaitutako langileek aurkeztutako aitorpenen eta datuen zehaztasuna eta egiazkotasuna une oro kontrolatzeko, abeltzainak edo artzainak inolako eragozpenik edo oztoporik jarri ezin dien ikuskapenen bidez. Abereak



ezkutatzea saihesteko, eskabideak Arabako Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuan dauden datuekin alderatuko dira.

6. KAPITULUA.- BAIMENDUTAKO ABEREA

24. artikulua.- Sotos y Vargas 610 zenbakiko onura publikoko mendian bazkatzeko baimena duten abereak hauek izango dira: ardiak, zaldiak eta behiak, betiere, gure mendietan bazkatzeko egokituak dauden arrazakoak badira.

Udala 611 zenbakiko onura publikoko mendian bazkatzeko baimena duten abereak hauek izango dira: ardiak, zaldiak, behiak eta txerriak, betiere, gure mendietan bazkatzeko egokituak dauden arrazakoak badira.

25. artikulua.- Ahuntz azienden larreratzea mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 46.3. artikulua ezarritakoaren menpe egoteaz gain, aurretik aipatu dugun Onura Publikoko Mendien Kudeaketa eta Antolamendu Planak ezarritakoaren menpe ere badago.

7. KAPITULUA.- APROBETXAMENDUEN BAIMENIK GABEKO EREMUAK

26. artikulua.- Debekatuta dago edozein arrazoirengatik mugatuta edo hesituta dagoen azalera orotan abereak sartzea, 1. poligonoko 409. partzelan izan ezik, horretarako baimena eskatu beharko baita.

27. artikulua.- Udalak, Arabako Foru Aldundiaren aholkuei jarraiki, mugak jarri ahal izango dizkie aprobetxamenduei, baldin eta zuhaitzietan eta beste baliabide batzuetan, hala nola uretan, kalteak antzematen baditu.

8. KAPITULUA.- ZERGA OINARRIA ETA APROBETXAMENDUEN KUOTAK

28. artikulua.- Karga oinarria aprobetxamendua erabiltzeko baimena duen jabe bakoitzaren abelburu kopurua izango da.

29. artikulua.- Bazkaleku bakoitzean aplikatu beharreko kuotak Arabako Foru Aldundiak onetsitakoak izango dira, azienta mota bakoitzari ehuneko 2,4 gehituta.

9. KAPITULUA.- SORTZAPENA ETA KUOTEN ORDAINKETA

30. artikulua.- Ordenantza honek hizpide duen zerga lehendabizikoz eta behin bakarrik sortuko da, betiere, aprobetxamendurako erabiliko diren mendietara abereak eraman baino lehen, hau da, Aguraingo Udalak aginduzko baimena ematen duenean.

10. kapitulua.- Arau haustek

31. artikulua.- Aguraingo Udalak duen zigortzeko ahalmenaren gauzatzean eta, martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak VII. tituluaren xedatutakoarekin bat etorriz, Arabako Foru Aldundiak jar ditzakeen zigorrez gain, beste arau hauste hauek ere jasotzen dira:



- a) 610 eta 611 zenbakiko onura publikoko mendietan abereak sartzea larratze eta larreen aprobetxamendurako indarrean dagoen egutegiak ezartzen dituen datetatik kanpo.
- b) Azienda 1. poligonoko 409. lursailean sartzea, artzaintzarako baimendutako egunetan.
- c) Ganadua 1. poligonoko 409. lursailean egotea, baimendutakoa baino denbora gehiago.
- d) Abereek identifikaziorik ez izatea edo behar bezala identifikaturik ez egotea, ordenantza honek jasotakoarekin bat etorriz.
- e) Abeltzaintza ekipamenduak eta azpiegiturak behar ez bezala eta baimenik gabe erabiltzea.
- f) Abeltzaintza aprobetxamendurako ezarritako kuotak ez ordaintzea.
- g) Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauan jasotako gainerako arau hausteak.

Arau hauste horiek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke, mendiei buruzko 11/2007 Foru Arauaren 69. eta 70. artikuluek xedatutakoaren arabera.

32. artikulua.- 610 eta 611 zenbakiko onura publikoko mendietan identifikatu gabe dauden abereak jabeagabek hartuko dira, eta Arabako Foru Aldundiko Mendien Zerbitzuak edo erakunde titularrak bahituran jarri eta jaso ahal izango ditu. Horiek abereen ardura hartuko dute, edo gordailuzain bat izendatuko dute, abereak 30 egunez zaintzeko. Epe horretan jabearen eskuera izango dira eta abereak itzuliko zaizkio. Horretarako, abere horien agiriak alde aurretik aurkeztu beharko ditu eta, hala bada, sortutako gastuak eta kalteak ordainduko beharko ditu. Edozein kasutan ere, dagokion espedientearen izapidetzeak sortutako gastuak gastu horien barruan sartuko dira.

Arau hausteari dagokion zigorraz gain, jabeak epe horretan abereak biltzen ez baditu, udalak saldu egin ahal izango ditu, eragin dituzten gastuak ordaintzeko. Saldutakoan gainerako diru hori abeltzaintza garatzeko erabili ahal izango du.

Modu berean, bazkatzeko eskubiderik ez duten abereak ere bildu egingo dira, eta jabeek haien mantentzeak eta haiek egindako kalteak ordaindu beharko dituzte. Horrez gain, dagokion zigorrari ere aurre egin beharko diote. Abere horiek biltzeko, jabeak 30 egun izango ditu. Epe horretan bildu ezean, udalak dagozkion neurriak hartuko ditu.

11. KAPITULUA.- DE LAS SANCIONES

33. artikulua.- Arabako Foru Aldundiak zuzentzen dituen zaintza-lanak alde batera utzi gabe, Aguraingo Udalak bere esku dituen baliabide guztiak erabiliko ditu ordenantza hau betearazteko, eta ikusten diren irregulartasunen berri emango dio Aldundiari.

34. artikulua.- Aurreko kapituluan jasotako arau hausteei ondoko zigorrak izango dituzte:

- Arau hauste arinak: 30 - 250 euro bitarteko isuna.
- Arau hauste larriak: 250 - 1.000 euro bitarteko isuna.
- Arau hauste oso larriak: 1.001 - 10.000 euro bitarteko isuna.



35. artikulua.- Jabe den erakundeak ezarritako epez kanpo udalaren jabetzakoak diren mendietan baimenik gabe edo baimenarekin dauden abelburu guztiak inolako izapiderik gabe biltzeko ahalmena dauka. Dena den, 32. artikuluan xedatutakoak izapidetu aurretik, abereen jabeari arau haustearen berri emango zaio. Jakinarazten zaionetik aurrera jabeak 24 ordu izango ditu abereak, inongo zigorrik gabe, biltzeko.

36. artikulua.- Nahita edo behar ez bezala erabiltzeagatik, abeltzaintza azpiegiturak hondatzen dituenak dagokion isunaz gain, eragindako kalteak eta galerak ordaindu beharko ditu.

37. artikulua.- Bazkatzeko aprobetxamendua erabiltzeko baimena deuseztatu ahal izango da. Deuseztatze horrek ez du ekarriko inongo kalte ordainik edo kuota itzuli beharrik, gehienez hiru urtetan. Horretarako kontuan hartuko dira ondokoak: ordenantza zein neurritan bete ez duen, zenbat isun dituen ordaindu gabe eta zenbat arau hauste larri egin dituen. Azken horiek ezin izango dira bi baino gehiago izan.

12. KAPITULUA.- ORDAINKETAK ETA ZIGORRAK EZARTZEA

38. artikulua.- Abereak bildu behar dituela jakinarazten zaionetik egun bat igaro eta arazoa konpontzeko bitartekorik bideratu ez bada, udalak jardungo du eta Arabako Foru Aldundiari jakinaraziko dio.

39. artikulua.- Ordenantza hau betetzen ez duenari dagokion zigortzeko espedientea irekiko zaio interesdunaren entzunaldiarekin eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen (HAAJL) 30/1992 Legeari eta aplikatu daitekeen gainontzeko araudiari jarraiki.

40. artikulua.- Administrazio bidean ebazpen irmoa jakinarazi eta ondorengo hamabost egunetan isuna ordaintzen ez bada, ordainketa hori premiamendu bidez eskatu ahal izango da. Halaber, egun horretatik aurrera premiamendu bidean kalte ordainak eskatu ahal izango dira.

41. artikulua.- Aguraingo Udalak ezartzen dituen zigorrak ez daude Arabako Foru Aldundiak horren inguruan duen zigortzeko ahalmenaren menpe. Ahalmen hori mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 70. artikuluan arautzen da.

13. KAPITULUA.- AZKEN XEDAPENA

LEHENENGOA

Ordenantza honek jasotzen ez duen guztiari dagokionez, kontuan hartuko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak ezarritakoa eta indarrean dauden gainerako lege xedapenak.

BIGARRENA



Ordenantza honen azken aldaketa 2021eko azaroaren 25ean onartu zen behin betiko, eta ALHAOn argitaratu ondoren sartu zen indarrean, eta indarrean jarraituko du aldatu edo indargabetu arte.

I.ERANSKINA

KUOTAK

Aguraingo 610 Sotos y Vargas mendiko eta 611 Udala mendiko larreen aprobetxamenduagatik urtean aplikatu beharreko kuotak honako hauek dira:

Buru bakoitzeko kuota

<u>Espezie</u>	<u>Sotos y Vargas</u>	<u>Udala</u>
Ardia	1,541 euro	1,541 euro
Txerria	5,547 euro	5,547 euro
Gapirioa	5,547 euro	5,547 euro
Zaldia, astoa eta mularra	11,970 euro	11,970 euro
Behia	12,006 euro	12,006 euro

610 Mendian (Sotos y Vargas) eta 611 Udalean (Aguraingo Udalaren titulartasuneko) abeltzaintza-aprobetxamenduak arautzen dituen Ordenantza 2021eko azaroaren 25ean behin betiko onartu zen.

Vº Bº
ALKATEA

IDAZKARIA